06. Hiri-egitura / Hiri-morfologia

1. Sarrera. Hiria gertaera kolektibo gisa batez ere espazio publikoen sarean adierazten da. Landa-lurzorua eta hiri-lurzorua ezberdintzen dituen faktore nagusia da espazio publikoen sarea. Espazio publikoen sareak hiriaren partzelazioa ahalbidetzen du, lursail bakoitzarako sarbidea eta zerbitzuen hornidura erraztuz; hiri barneko zirkulazioa ahalbidetzen du, hiriaren puntu batetik bestera ailegatzea, alegia; hiriaren pertzepzioa ahalbidetzen du. SAREA da jarraitua delako, espazio-osotasun bat eratzen duelako (salbuespen gisa, Estatu Batuetako familiabakarreko etxeez betetako aldiriak, kale itsuetan oinarritzen direnak). PUBLIKOA da jabegoa eta haren errespontsabilitatea kolektibitatearena delako, eta erabilera askekoa delako (kasu berezi batzuetan ezik: autopistak, kasu).
2. Espazio publikoen sareak lau funtzio nagusi ditu (Juli Esteban Nogueraren arabera):
    - Lurraldea eta hiria komunikatzen ditu. Hiri-espazioaren eta hiria inguratzen duen lurraldearen arteko komunikazio zuzeneko erlazioa ezartzen du. Landa-espazioaren bideak hirian sartzen dira, kaleak eta beste motatako hiri-espazioak bihurtuz. Beraz, espazio-publikoen sareak kanpoko mugimenduak jasotzen ditu, bertan geratzekoak direnenak eta besterik gabe igarobide gisa erabiltzen dituztenenak ere. Adibideak: Lapurdiko Ainhoa herria. Done Jakue bidean sortutako bi *ibilbide-herri*: Gares, Nafarroa Garaia, XI. mendean sortua, eta Donibane Garazi, Nafarroa Beherea.
    - Hiriaren barneko komunikazio-bideen multzoa osatzen du. Espazio-publikoen sareak hiriko garraio mota guztiak jasotzen ditu: oinezkoenak eta ibilgailuenak (garraio publikoa eta pribatua). Adibideak: Pariseko bidegurutzea, 1906an, Richelieu etorbidea eta Boulevard Montmartre artean (agertzen dira biribilgunea, oinezkoen pasabide lurperatuak eta trafikoa bideratzeko irlatxoak), Eugene Henardek proposatua; Donostiako 1860ko Antonio Kortazarren zabalgunea, alde zaharreko Kale Nagusiaren norabidea jarraituz (Hernani eta Loiola kaleekin); Iruñeako zabalgunea Nabarreriako kaleen norabideari jarraituaz (Arteagaren 1909ko proiektua –Nafarroa Beherearen hiribidean oinarritzen zena- eta Serapio Esparzaren 1920ko proiektua; Merced kaleak bat egiten du Brisa eta Aralar kalearekin, eta Karlos III.aren etorbidea Gaztelu plazatik bertatik ateratzen da).
    - Partzelazioaren erreferentzia da. Lursail bakoitzari sarbidea eta zerbitzuak ahalbidetzen dizkio. Adibideak: Bernako aldiri-zati antolatugabe bat. Amsterdamgo 1650eko partzelazio arrazionala, ubideen logikarekin erabat uztartuta. Ingalaterrako bi hiri berri, non lursailak espazio libreen sarearen arabera zatitzen diren: Letchworth (1902, Raymond Unwinek diseinatua) eta Milton Keynes (1964, kaleen sare nagusia eta gero datoz lursailak).
    - Hiri-ehundura edo hiri-sarea fokalizatzen eta artikulatzen du. Hirian hierarkia ezartzen du (kale eta plaza nagusiak, bigarren mailakoak, eta abar). Hiriaren irudirik esanguratsuenak ematen ditu, hiriari berari esanahia gehituz. Hiri-elkarbizitzarako espazioak ematen ditu: jolaserako, saleroskетetarako, aisialdirako, eta abar. Adibideak: Afganistango Herateko karrika estuen eta kale nagusien arteko hierarkia. Erromatar garaiko Konstantinopoliseko (gaurko Istanbul) Mese kalea, foroen sekuentziarekin, Jauregi Handitik Urrezko Aterarte.
3. Espazio publikoen sareak bi osagai ditu:
    - Eskema antolatzailea edo egituratzailea. Sarearen konposizioaren legea: Eskema organikoko sarea, sare ortogonala, sare erradiala, eskema linealeko sarea, aurrekoen arteko konbinazioak…
    - Sarearen elementuak. Oinarrizkoenak kalea, plaza eta parkea dira. Eskalan eta tratamenduan bereizten dira (zuhaitzak, aparkalekuak, hiri-altzariak, oinezkoentzat ala ibilgailuentzat izatea, espaloien zabalera…). Adibidea: Donostiako lehengo bulebarra, 1985.
4. Espazio publikoa ez bezala, espazio partzelatua etena eta zatikatua da, eta bertan eraikitzen da. Espazio partzelatuetan jarduera pribatuak garatzen dira gehien bat, baita jarduera publiko batzuk ere. Hiri-lursail gehienak etxebizitza-jarduera dute. Espazio partzelatuaren bestelako jarduerak: Industria, jarduera tertziarioak (merkataritza-jarduerak, bulegoak, jarduera turistikoak…), ekipamenduak (zerbitzu publikoa eskeintzen dutenak: hospitalak, gizarte-etxeak, eskolak…). Adibidea: Deustu eta Bartzelonako Besosko hegomendebaldea, non erabilera ezberdinak batera ikusten diren.
5. <u>Hiri-morfologia</u>: Hiriaren forma aztertzen duen zientzia edo diziplina. <u>Hiri-egitura</u>: Hiriaren osagaien erlazio formala, hiriaren *"hezurdura"*. Formaz haratago ere hiriaren sailkapen ezberdinak egin daitezke: Kevin Lynchen Hiri-kosmikoa –non antolakuntza sinboliko eta kosmologiko-goitiar batengan sinisten den, eskuarki eredu kontzentriko baten bidez- (adibideak: Sam'al hiriko harresi bikoitza, K. a. XXI inguru, gaurko Zincirli, Turkia. Arc-et-Senanseko Erret Gatzagak –lanaren antolakuntza jerarkikoaren erakusgarri-, Ledoux, 1775. Richard Kauffmannen Nahalal moshav nekazal kooperatiba, 1921, Israel.), hiri-organikoa (adibideak: Vezelay, Frantzia. Berna, Suitza. Berastegiko sakabanaketa baserritarra, Gipuzkoa. Santa Cruz de La Palmako sakabanaketa turistikoa, Kanariar Irlak) eta hiri-praktikoa (adibideak: Edinburgoko *New Town*, James Craig, 1766-1800, denborarekin etxe-irletako patioak bete egin direla; neurriak: 175 x 140 metroko etxe-irlak, 12 metroko sakonerakoak; guztira 300 x 1.100 metroko zabalgunea, 35 hektarea inguru. Cerdaren Bartzelonako zabalgunea, 1859. Le Corbusierren Berlineko konkurtsoa, 1961).